



**Hiztegitxo**


**Hobeto irakurtzen laguntzeko**




<b>abelera</b> ardura	«Bere aitak, berriz, Blanca Nieves oraindik gaztetxoa zela etxeko <b>abelera</b> hartzeko, eta ezkontzea pentsatu zuen, beste ama bat izan zezan.»	(154)
<b>abistua</b> txistua	«Mutila atera zen leihora, eta bi behatzak ahoan sartuaz, berealdiko <b>abistua</b> egin zuen, zakurrei hots egiteko.»	(136)
<b>adinean</b> beste, bezainbeste	«— Ez dakit, baina nolani ere hemen <b>adinean</b> izango al naiz.»	(88)
<b>aldarte</b> pertsonearen egoera	«Alabak aditu izan zion noizean behin, bere aitari, <b>aldarte</b> onean zegoenean, bera ez zela hilko eta inork ere ez zuela hilko...»	(90)
<b>amilka</b> goitik behera	«Azkeneko mailetara iristean, gorputzak ihes egin zien; denak han erori ziren <b>amilka</b> .»	(160)
<b>amutsa</b> adimen gabea	«— Ez haiz <b>amutsa</b> —erantzun zion alkateak—, horregatixek nahi diat beste zerbait eskatu, ontzi hori hiri eman baino lehen.»	(55)
<b>antzeman</b> igarri, asmatu	«Oso neska ederra zen eta goxoa eta argia, gauzei azkar <b>antzematen</b> ziena.»	(89)
<b>arbi</b> baratze-landarea (‘nabo’)	«Behin Artzateko baserrian, gizon zaharra joan omen zen sorora, saski <b>arbi</b> bat ekartzera.»	(187)
<b>arlote</b> zarpaila, itxura traketsekoa	«— Hi bezalako mutil argal eta <b>arlotearekin</b> hitz egiteko ez zegok hura!..»	(85)
<b>artale</b> arto alea	«...beretzako jana sorbaldan eta txerriarentzat <b>artale</b> batzuk eskuan zituela...»	(38)
<b>atalaga</b> atea barrutik ixteko haga	«Ateek <b>atalaga</b> , maratila edo giltzaren bat ote zeukaten ondo begiratu zien, baina alferrik: han ez zen ezer ikusten.»	(122)
<b>aztia</b> azkarra, trebea	«Alkateak ezagutu beharra izan zuen ez zirela konturatu eta bera baino <b>aztiagoak</b> ere bazirela munduan...»	(54)
<b>balihoa bezala</b> joango balitz bezala	«Arratsaldean, ehizara <b>balihoa bezala</b> , joan zen anaia gaztea lapurren leizea zegoen tokiraino.»	(121)
<b>bapo</b> aseta, bete-bete eginda	«Nahikoa jan eta <b>bapo</b> jarri zenean...»	(121)
<b>basoerdi</b> txikitoa, ardo	«Bidean zihoazela, bi gizonak taberna batean sartu ziren, <b>basoerdi</b> bana hartu behar zutela eta...»	(113)
<b>bazkatu</b> landan belarra jan	«Behiei jaten eman, eta <b>bazkatzen</b> ari zirela, gizonak zer entzun zuen esan zien etxekoei, kantatuz...»	(187)
<b>begiratu</b> begirada, soa	«— A...!, nik halako tokitan bizi den nire anaiaren <b>begiratu</b> bat baneuka hemen!, ez nitek hire beldurrik...»	(93)
<b>bere baitan</b> bere barrurako	«Mutila harrিতa gelditu zen zakur haiek ikusita: "nireak balira", zioen <b>bere baitan</b> .»	(130)
<b>berealdiko</b> ikaragarritzko, itzelezko	«Mutilak ardiak lehoiaren barrutian sartu orduko, han azaltzen zen hau <b>berealdiko</b> orroak eginez...»	(94)
<b>berealdikoak eman</b> egurtu, jipoitu	«Orduan mutilak hartu zuen eskupeta kainoitik eta <b>berealdikoak eman</b> zizkion lapurrari.»	(42)
<b>berekoia</b> egoista	«Enano horiek oso <b>berekoia</b> ziren; horregatik zeukan bakoitzak bere lapikoa jana jartzeko...»	(156)
<b>bilkura</b> bilera, batzarra	«Gauerdian izan ohi zituzten <b>bilkurak</b> , eta orduan erabakiko zuten mutilari zer esan.»	(178)
<b>burruntzi</b> jakia sutan erretzeko burdina	«...gau hartantxe hiltzeko asmoa hartu zuen eta baita <b>burruntzi</b> haundi bat surtan jarri ere, ondo guri zedin.»	(71)
<b>dardarizo</b> dardara, ikara	«Atera zuen orratz hura, eta Blanca Nievesen gorputz guztiak <b>dardarizo</b> bat bezala izan zuen.»	(163)
<b>elbarrituta</b> ezinduta, jota	«Lurrera bota eta erabat <b>elbarrituta</b> , zutik ere egoteko ez zela utzi zuen lapur gizajoa.»	(42)



<b>elizakoak</b> hilzoriko sakramentuak	«—Zoazte azkar holako herrira eta ekarri <b>elizakoak</b> . Bitartean nik konfesatuko dut hau.»	(47)
<b>eltze</b> lapikoa	«Mutilak ikusi nahi izan zuen zer ote zegoen surtako <b>eltze</b> haundi hartan.»	(81)
<b>errada</b> zurezko ontzia	«Etxetik ateratzera zihoala bere emaztea zetorren <b>errada</b> ura buru gainean zekarrela.»	(39)
<b>errainu</b> argi izpia	«Halako batean ikusi zuen, bazter batean, su <b>errainu</b> bat bezala.»	(81)
<b>eskapulario</b> lepoko berezia	«Azkenean, atera lepotik, eta <b>eskapulario</b> bat eman zion esanez...»	(80)
<b>esnai</b> erne, adi	«Etsai Zaharra ere pazientzia galtzen ari zen, eta <b>esnai</b> edo lo, bi gazte haiekin egin behar zuena lehenbailehen egitea erabaki zuen.»	(72)
<b>etsai zaharra</b> deabrua	«Ondo jantzitako gizon hura <b>Etsai Zaharra</b> zen, eta Goñiko Zalduna hondatzea nahi zuen.»	(29)
<b>etsi</b> itxaropena galdu	«Ia <b>etsi</b> zuenean inor ez zela etorriko, etxera joatea pentsatu zuen.»	(79)
<b>ezinikusia</b> gorrotoa, mania	«Beharbada <b>ezinikusia</b> ziolako eta berak baino diru gehiago ez izateagatik.»	(121)
<b>ezteia</b> ezkontza-ospakizuna	«Ezkontzeko eguna izendatu zuten, eta maiorazkoak nahi izan zuen herri guztiak parte hartzea <b>eztei</b> hartan.»	(151)
<b>gaitz</b> gaixotasuna	«Blanca Nievesek hamalau-hamabost urte zituenean, bere ama <b>gaitz</b> gogor batek harrapatu zuen eta hil egin zen.»	(154)
<b>galtzarbea</b> besapea	«Hurrengo goizean, mutila <b>galtzarbean</b> izara zuela ate joka azaldu zenean...»	(54)
<b>garrasi</b> oihua	«Gau batean, ama eta mutikoa biak lo zeudela, mutikoa bat-batean <b>garrasiz</b> eta saltoka hasi zen.»	(165)
<b>gatzura</b> ur gazia (gazta egitean)	«Aralarren ba omen zen artzain bat, eta egunero jentil haundi bat etortzen omen zitzaion, txerrientzat zeukan <b>gatzura</b> edatera.»	(185)
<b>gerturatu</b> hurbildu, hurreratu	«—Zer behar duk hemen? —esan zion etxe hartako nagusiak, mutila <b>gerturatu</b> zen ordurako.»	(89)
<b>gori-gori</b> suaren beroaz gorrituta	«Talo-burdina han zeukan surtan, <b>gori-gori</b> eginda.»	(186)
<b>guri zedin</b> bigun zedin	«...gau hartantxe hiltzeko asmoa hartu zuen eta baita burrunzti haundi bat surtan jarri ere, ondo <b>guri zedin</b> .»	(71)
<b>habea</b> zurezko euskarria	«Haurra jaoitzen denean, ni armiarma baten antzean jaitsiko naiz goiko <b>habetik</b> , haurraren buru gainera...»	(178)
<b>hargin</b> harria lantzen duena	«Makina bat lan klase probatu zituen: artzain, itzain, ikazkin, <b>hargin</b> eta beste asko, baina behin ere ez bere gustukorik.»	(89)
<b>herorri</b> heu	«—Izan duk hik <b>herorri</b> baino laguntzaile hobea lan hori egingo bahuen...»	(65)
<b>hoska</b> deika	«...behin Larruntza pasatu zuenez gero, Lauztiazpiko mutil hori <b>hoska</b> hasi omen zen: —Aingeru Goardakoa baldin bahaiz, azal hadi!..»	(192)
<b>ikazkin</b> egur-ikatza egiten duena	«Makina bat lan klase probatu zituen: artzain, itzain, <b>ikazkin</b> , hargin eta beste asko, baina behin ere ez bere gustukorik.»	(89)
<b>ilenti</b> egur-zati erdi errea	«—Zer txerri eta zer txerrikume! —erantzun zion gizon hark— (...) hartzen badiat <b>ilenti</b> bat...!»	(40)
<b>isatsa</b> buztana	«...txerrien <b>isats</b> guztiak beretzat behar zituela, etxera eramateko.»	(103)
<b>itutea</b> itogina, tantaka erortzen den ura	«...palazioko teilatu gainean ibili naiz, eta han ez da erbi arrastorik azaldu. <b>Ituteak</b> bai, izango dira han ugari.»	(102)



<b>itzain</b> idiak zaintzen dituen	«Makina bat lan klase probatu zituen: artzain, <b>itzain</b> , ikazkin, hargin eta beste asko, baina behin ere ez bere gustukorik.»	(89)
<b>kalostra</b> klaustroa (elizakoa)	«Hortxe gauerdiko inguruan esnatu zenean, hizketa hots haundi bat entzun zuen <b>kalostran</b> .»	(183)
<b>kontu kontari</b> kontuak kontatzen, berriketan	«Neskak eta biek ardiak bildu zituzten eta etxera itzuli ziren, <b>kontu kontari</b> .»	(96)
<b>kopeta</b> bekokia	«Orduan mutila jaitzi zen pikutik, isil-isilik, hartu zuen eskuan uso arrautza, eta zastaaa...! lehertu zion etsai zaharrari <b>kopetan</b> .»	(97)
<b>kordea</b> konortea	«Blanca Nieves lurrera erori zen <b>korderik</b> gabe, hilda.»	(162)
<b>larria</b> handia	«Alaba neska <b>larria</b> zen eta bera ibiltzen zen artzain eta beste lanak egiten...»	(93)
<b>larru gorrian</b> biluzik	«Jantzi zen berriz <b>larru gorrian</b> zegoen mutila eta lapurrekin gelditu zen eguna zabaldu arte.»	(123)
<b>larrutu</b> larrua kendu	«Gu biotan aurrena haserretzen dena bizi-bizirik <b>larrutua</b> izan dadila. Ondo iruditzen al zaizu?..»	(98)
<b>laukoan</b> galapan, lauhazkan	«Mutilak, lapur haiek ikusi zituenean, zaldia <b>laukoan</b> jarrarazi zuen eta tiro batzuk botatzen zituen bitartean, hoska hasi zen...»	(48)
<b>luku</b> sorta	«...laster azaldu ziren mahats kimuak <b>lukuz</b> beteta...»	(66)
<b>lukurra</b> zikoitza, diruzalea	«— Bai —erantzun zion nagusiak, izan ere oso <b>lukurra</b> zen, eta soldatarik gabe lana egingo ziola agindu zionean besteak...»	(98)
<b>mailo</b> harkaitz, haitz	«Neska, han inguruko <b>mailo</b> baten atzean ezkutatuta zegoen, eta hitz horiek entzutean, lasterka atera zen...»	(96)
<b>maiorazkoa</b> oinordekoa	«Bi alaba eta seme bat ziren etxearen jabeak eta mutila zen <b>maiorazkoa</b> .»	(142)
<b>maratila</b> ate-leihoak ixteko pieza	«Ateek atalaga, <b>maratila</b> edo giltzaren bat ote zeukaten ondo begiratu zien, baina alferrik: han ez zen ezer ikusten.»	(122)
<b>miatu</b> arakatu, aztertu	«Bazter guztiak <b>miatzen</b> hasi zen denborarik galdu gabe...»	(121)
<b>negar batean</b> negar eta negar	«Etxeko guztiak, aita, ama eta senideak denak <b>negar batean</b> gelditu ziren.»	(61)
<b>ondoeza egin</b> txarto sentitu, konortea galdu	«Emaztea <b>ondoeza egin</b> eta bertan erori zen.»	(30)
<b>ontzako</b> ontza baten neurrikoa	«Dena bukatu zuenean, ontzia itzuli zion alkateari; <b>ontzako</b> urre batzuk ere bai...»	(58)
<b>osin</b> putzua	«Berehala abiatu ziren beheko ibaira, han zegoen <b>osin</b> haundi batera bota behar zutela-eta.»	(113)
<b>palastaka</b> txipli-txaplaka	«Berehala hasi zen <b>palastaka</b> eskuak ibiltzen eta arnasa ezin harturik...»	(116)
<b>pardel</b> zapi batez bildutako ekipajea	«Goiz batean, inori ezer esan gabe, hartu zuen <b>pardeltxo</b> bat (...) eta bideak aurrera abiatu zen.»	(88)
<b>partitu</b> banatu	«Garai hartan, lapurrak eliza atarian bildu ohi omen ziren, eta beti gauez, harrapatutako diruak <b>partitzeko</b> .»	(183)
<b>patsa</b> bitsa, adurra	«...zaldi gizajoa dena odola zeriola eta ahotik <b>patsa</b> botatzen zuela jarri zen.»	(67)
<b>prantatu</b> prestatu, atondu	«Ni hemen geldituko naiz eta zoaz ukuilura zaldi bat <b>prantatzera</b> .»	(71)
<b>pronto</b> prest	«— Joan hadi eta esan nagusiei bazkaria <b>pronto</b> dagoela.»	(110)



<b>siratsa</b> zingira, basatza	«Mendi haundi batetik pasatu behar zuen, eta bazekien hark non zegoen <b>sirats</b> bat.»	(103)
<b>surtan</b> su artean	«...gau hartantxe hiltzeko asmoa hartu zuen eta baita burrunntzi haundi bat <b>surtan</b> jarri ere, ondo guri zedin.»	(71)
<b>tekela</b> liskarra, eztabaida	«Hiru ahizpek tekela handiak izaten zituzten beren artean, eta aita ere sartzen zen batzuetan <b>tekela</b> haietan.»	(140)
<b>tragatu</b> hil	«Etsai Zaharra aspertu zen tekela honetan eta, sua begietatik zeriola, Zaldunaren gainera abiatu zen <b>tragatu</b> nahirik.»	(33)
<b>txilibitua</b> txistu egiteko tresna txikia	«Gero nik <b>txilibitua</b> joko dizut belarri ondoan, eta jaiki egingo zara.»	(111)
<b>txuma eginda</b> blai-blai	«...eguraldi txarrak eta hotzak hasi zirenean, dena bustita, <b>txuma eginda</b> etortzen zen Maria gaixoa menditik.»	(144)
<b>zaharkina</b> gauza zaharra	«Soinean zeuzkan jantziak erantzi, eta <b>zaharkin</b> batzuk jantzi zituen...»	(50)
<b>zahatoa</b> larruzko ontzi txikia (bota)	«Bete ezazu <b>zahato</b> txikia ardoz, eta jar ezazu golkoan.»	(111)
<b>zalaparta</b> istilua, zarata handia	«...eta ikustekoa izan zen hango istilua, hango irrintziak eta <b>zalapartak</b> .»	(127)
<b>zer gerta ere</b> badaezpada ere	«...eta haruntzaxe joatea pentsatu zuen, <b>zer gerta ere</b> .»	(89)
<b>zeriola</b> irteten zitziola	«Etsai Zaharra aspertu zen tekela honetan eta, sua begietatik <b>zeriola</b> , Zaldunaren gainera abiatu zen tragatu nahirik.»	(33)
<b>zital</b> doilorra, gaiztoa	«Nagusia haserretu zen, baina neskame <b>zital</b> hura berearekin ez zuela atera behar pentsatuz, zahato txiki bat eman eta...»	(172)
<b>zuztarra</b> sustrai	«Morroiak hartu zituen idiak eta gurdia eta, nagusiak zeukan mahasti batera joan, zepa guztiak <b>zuztarretik</b> atera zituen eta...»	(99)